

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

**Grafologia ikastaroa
Axtrokiren eskutik /8**

KIROLA

**Ehiza txikiko denboral-
dia zabalik /9**

LEINTZ GATZAGA

**Gatzagako alkatea
'Herrilan' saioan /10**



**PAUSOKA
HAUR
ESKOLAREN
INAUGURAZIOA
BIHAR**

ASTEKO GAIA: ERRETZEN UZTEKO IKASTAROA/5 • HERRITARRAK: ROBUSTIANO RODRIGUEZ/7

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 19
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22
DOMEKA, 20
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11
UDALTAINGOA	
Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 12:00
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 8:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

GORONAETAN
Domeketan: 11:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

OHARRAK

PAUSOKA HAUR ESKOLAREN INAUGURAZIOA

Bihar, zapatua, Pausokako Haur Eskola inauguratuko dute. Argibide gehiago ale honetako laugarren orrian aurkituko duzue.

ARETXARTEKO BATZAR OROKORRA

Datorren eguaztenean, urriaren 23an, Aretxarte merkataritza elkarte baxkideek urteko batzar orokorra egingo dute. Batzarra kultura etxeko gela baten izango da, 15:15ean.

ERRETIRATUENDAKO HITZALDIA

Datorren eguaztenean, urriaren 23an, *Memoriaren Sekretuak* izenburuko hitzaldia egingo dute Basotxon, 17:00etan.

EPEH PLATAFORMAREN KALE AGERRALDIA

Datorren egubakoitzean, urriaren 25ean, EPEH Plataformak kale agerraldia egingo du Pagaldaixeneko kantoian, 19:00etan. Betiko moduan, *Euskal Presoak Euskal Herrira!* lelopean egingo dute kale agerraldia.

ESKULAN IKASTAROA

Oraindik zabalik dago Kultura Sailak antolatutako Eskulan ikastaroan izena emateko epea; horretarako, kultura etxera joan, 11:00etatik 13:00etara.

LORAMENDIREN AGENDA

PAKETERIA IKASTAROA

Oparitarako edo bestelako paketeak zelan egin ikasteko ikastaroa antolatu du Loramendi EEk. Urriaren 30ean hasi eta azaroaren 13an amaituko da ikastaroa. Izen emateko epea datorren urriaren 25ean amaituko da. Parte hartzaile guztiek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Izen emateko edo informazio zabalagoa eskuratzeko, deitu 943 77 09 70 zenbakira.

ORAINDELA 6 URTE ARETXABALETAN

Akordeoi Orkestrak lehen saria irabazi zuen


Aretxabaleako Akordeoi Orkestrak nazioarteko lehen saria irabazi zuen orain dela sei urte, Italiako Castelfidardo herrian egin-dako lehiaketan. Eta Gazte Orkestrak ere, urte eta hilabete berean, Irun Hiria Akordeoi Txapelketan lehenengo saria eskeratu zuen, bere mailan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Eskatza"

Sukaldea.
-Oin ba, sukaldia esaten dou, sukaldia danian, baiña gu umiak giñanian, eskatza, eskatza. Sukaldeik ez.



LIBURUTEGIKO TXOKOA

Liburuen zerrenda

- ELEBERRIAK**
- 'Rebel Mayo Colorao' / Paddy Rekalde
 - 'Pájaros a punto de volar' / Patricia Highsmith
 - 'Se está haciendo cada vez más tarde' / Antonio Tabucchi
 - 'Comedia infantil' / Henning Mankell
 - 'El vientre de la ballena' / Javier Cercas
 - 'La ciudad de las bestias' / Isabel Allende
 - 'El Gran Gatsby' / Francis Scott Fitzgerald
 - 'Plataforma' / Michel Houellebecq
 - 'La voz dormida' / Dulce Chacón
 - 'Los caminos de Elias: El ayales' / Jose Luis Urrutia
 - 'La reina del sur' / Arturo Pérez-Reverte
 - 'La casa de hielo' / Inger Frimansson
 - 'Alacranes en su tinta' / Juan Bas
 - 'Las llamadas perdidas' / Manuel Rivas
 - 'Charlotte Gay' / S. Faulks

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA
Gaizka Beloki
13an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ziortza Martín
19an, 29 urte. Urte askotarako! ARETXAGAZETA-ko lankideak.



ARETXABALETA
Karlos Martín
20an. Zorionak, Inmaren, Nahiaren, Aneren eta Endikaren partetik.



ARETXABALETA
Kerman González
23an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Rosa del Aguila
25ean. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
Joseba Fernandez de Arroiabe
18an, 7 urte. Zorionak! Gurasoak eta Aitor.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar itzazu haien argazkiak eta emaezu ezusteko ederra!
Doan!

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Udalak erreten ixteko sei orduko ikastarue antolatu dau. Hola itxi leike?




NURIA SEGOVIA
langillie



JOXE MIGEL URIBARREN
langillie




ITZIAR BENGOA
langillie



JUAN RAMON ALTUBE
langillie



GARBIÑE BENGOA
langillie



LUIS ANTOÑANZAS
langillie

Sei orduen? Ez dot pentsetan horrek funtzionauko dauenik. Asko erreten dot, eta uste dot sei orduen ez neukela itxiko. Haurdunaldixetan itxi dot, baiñe gero barriro hasi naz.

Erretzailie izendakue naz, eta ez dot uste hola, sei orduen, itxi leikenik. Borondate haundixe eukittie da inportatie. Holaxe itxi neuen, eta 19 urte daroiet erre barik.


Ez dakit, hori norberaren arazue da, baiñe uste dot inportantiena gure izetie dala. Alperrikakuek izengo die egingo dien ikastaro danak, benetan erreten ixtie gure ez bada.

Ez dot sekula erre, baiñe uste dot sei orduen gatxa dala erreten ixtie. Erretzailiek bizio hori berez, norberaren esfortzuakin, kendu biherko daue. Beste dana alperrikakue da.

Erretzailie naz, eta esango neuke ez dala halako errexa erreten ixtie. Ikastaro horreik laguntasun haundixe emuten daue, baiñe borondatie eukittie da inportantiena.

Oin dala urte bi itxi nutzen erretiarri, eta ondiokan be eskuek poltsikuen sartzen dittudaniien tabakua faltan somatzen dot. Sei ordu ez die nahikuek, borondate haundixe euki biher da.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BERBETAN-EKOAK KOKOTERAINO! Berbetan orain dela hiru urte inguru zabaldutako akademia da. Han lanean dabilzanen helburua da edozein neska-mutikori laguntza eskaintzea. Horregatik, zaila da ulertzea nork egiten dion eraso akademiari behin eta berriro. Duda barik, umekeria galantak dira eraso horiek. Pertsona helduek ez dute horrelakorik egiten. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Pausokaren inaugurazioa

Bihar, zapatua, Pausoka Haur Eskola inauguratuko dute. Goizean egingo dute ekitaldi ofiziala.

KIROLAK /06

Kirol etxeko zergen igoera

Datorren urtetik aurrera kirol etxeko zerbitzuen zergek zenbait aldaketa izango dituzte.

HERRITARRAK /07

Arantzazuren bidaia, Txinara

Arantzazu Uribetxebarriak eta senarrak oroitzapenak eta alabatxoak ekarri zituzten Txinatik.

ASTEKO DATUA

180

MILA EURO KOSTATU ZEN SAN LUIS GONZAGA ETXEA

Horietatik 120 mila euro inguru Eusko Jaurlaritzak ordaindu zituen; ez, ARETXAGAZETA-ko 266. alean jarri genuen moduan, aretxabaletarrek. Gure herria bazkide laguntzaile izan zen.

BESTE EKESANA


“ Bueno, ez dakit, nire helburua edo edozein apaizen helburua, goazen herrietan, hemen, Alegin,

Oreindanen edo ikaztegiatan Jesusen testigu izatea da. Baina, noski, ez da gauza bera Jesusen testigu izatea giro baten edo beste baten. Oreindainen han egonda nahiko da, 150 biztanle besterik ez ditu-eta. Gainera %80 erretiratuak dira. Baina, hemen San Andresen ez da gauza bera. Eta orain ostera moldatu beharra daukat hemengo girora.

Nik, San Juanera etorri den Genaro Lekuonak, eta hemengo abade talde batek ikusi beharko dugu zer egin genezakeen, ze lehentasun dauden. Aurreneko lana horixe izango da, ingurura begiratu eta hemen zer dagoen ikustea.

JON MOLINA
Arraste Irratia/02-10-14

HERRITARREN BERBAK/ Edorta Mendieta



Urkuluko protokoloa

Natura modan dago. Eta zer esanik ez ekologismoa. Bai jauna, kostata baina lurra gaixo dagoenaz jabetu gara. Bejondeigula! Baita konponbidea, existitzen bada, gure esku dagoenaz ere. Aleluya!

Stop the acid rain! Safe the Amazonia! Salba dezagun mundua! Goazen denok Rio de Janeirora..., Kyotora..., Johannesburgora... Sinatu dezagun "protokolo" bat..., bi..., eta hiru...

Bai ba. Guzti hori oso ondo dagoenik ezin ukatu (batez ere bertan sinatutakoa Estatu guztiek beteko balute). Lurra da gure bizilekua eta bat bakarra daukagu. Horregatik merezi du berau zaintzeko denboratxo bat hartzeak.

Baina gure mundu honetan arazo potolo horietaz gainera baditugu beste txikiago batzuk ere, medioetan agertzen ez direnak eta jende multzo handiak mugi arazten ez dituztenak. Baina txikiagoak diren arren, ezin ukatu bere garran-

tzia ere badutela, batez ere gure artean gertatzen direlako.

Aspaldian Urkulutik agertu barik nintzen, eta hobe agertu izan ez banintz. Halako paraje ederrik nahi lukete edonon... Turismo aktiboa hain modan dagoen honetan Urkulu eta bere inguruak gure herriarentzako errekurtsio ezin hobetarikoa bat lirakeke. Zaindu eta erantzukizunez aprobetxatu beharreko errekurtsioa.

Baina ez. Gure ingurunerik aprobetxagarrienetako batean loreak eta kondoiak dira nagusi. Txoriak eta kondoia dira nagusi. Txoriak eta

konpresak. Egun pasa datozenak eta zabor poltsak. Ura eta autoa garbitu asmoz etorri direnak. Ze pena eta ze tristura hainbeste txerriren artean bizi garela deskubritzea.

Amazoniaz, ozono geruzaz, lur azalaren berokuntzaz, ari garenean ez du inork dudarik zerbait egin beharra dagoela. Baina, nola izango gara gauza mundu hobe eta txukunago bat egiteko gure ingurunea hankaz gora baldin badugu?

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxega

Olagarroa finoarekin

Domeka honetan etxetik kanpora bazkaltzeko asmoa daukat. Aspertuta nago beti betiko jaten! Horregatik, Gastronomía eta Folklore jaialdira joango naiz, aurten ez dut hutsik egingo. Galiziako olagarroa, Andaluziako fino, eta ez dakit nongo ogia... den-dena barrura! A! Eta posterrako patxaran apur bat eskatuko dut. Ez dakit emango didaten, baina lehiaketa, behintzat, badago, eta ni ez naiz despistatuko. Epaile moduan hartu gura banaute ere, ni prest! Baina, tira, dena ez da jan eta edan izango. Dantzak eta beste herrietako ohiturak ere ikasi edo, behintzat, ikusi beharko ditugu. Ole eta ole!

Eta beste herri batzuetako ohiturez ari naizela, badakizue non dagoen gure **Iratxe Bengoa**, urtetan ARETXAGAZETako langile izan dena? Ba estreinatutako berri duen senarrarekin, Zeelanda Berrian. Urriaren 12an, Pilarika Egunean, ezkondu ziren, Larrinon, eta orain ezkonbidaian daude. Zorionak, bikote, eta urte askotarako izan dadila!

Ni, barrez, hementxe geldituko naiz, ez mutil ez senar eta ezkonbidaiarik egin barik. *Fitness* klasean komentatu didate neska batzuek Interneten topatu dutela mutila. Nik ere probatu beharko dut!

INAUGURAZIO EKITALDIA/ Gaur, egubakoitza, gura duenak ikus dezake eraikin berria

Pausoka Haur Eskolako eraikina inauguratuko dute bihar, zapatua

AMAGOIA LASAGABASTER

Bihar, zapatua, Pausokako eraikin berria ez da ume txikiekin bakarrik beteko. Bihar, umeak, haien gurasoak, Gizabideko presidentea eta herriko alkatea ere hantxe izango dira. Guztiek batera Pausoka Haur Eskola inauguratuko dute.

Bihar, zapatua, egun handia izango dute Pausoka Haur Eskola inguruan ibiltzen diren guztiek. Azkenean ere, eraikin berria inauguratuko dute. Eta horretarako, jaialdia antolatu dute.

Lehenengo ekitaldia 11:00etan hasiko da: umeendako ipuin kontaketa saioa eta diaporama emanaldia egingo dute; gero, 11:30ean, ekitaldi ofizialari emango diote hasiera. Berbaldiak eta agurrak izango dira tarte horretan protagonista; 12:00etan, luntxa egongo da eskolara hurreratzen diren guztiendako; eta, azkenik, 12:30ean, buruhandiek ume guztiak airean jarriko dituzte. Horrez gainera, inaugurazio ekitaldiak irauten duen bitartean, argazki erakusketa polit bat ikusteko aukera izango dute Pausokako lagunek.

ERAIKIN BERRITZAILEA

Pausoka Haur Eskolako eraikina atzerapenarekin, baina, ikasturte berrirako gertu zegoen. Lanak egin dituen arkitektoak itxura berritzailea eman dio kanpoko aldetik. Barruko aldetik, berriz, Pausokako langileen nahi guztiak



FELIS B. DE HEREDIA

Leihu ugari eta itxura berritzailea du Pausoka Haur Eskolako eraikinak.

errespetatuz, espazio erabilgarria bezain polita egin du.

Pausokako eraikinak, beheko aldeko gunea kontuan hartu barik, hiru solairu ditu. Barruko aldeko espazio guztia zati bitan banatua dago: batetik, umeendako propio egindako gelak daude, hala nola, jolas egiteko gelak, komunak eta jangela; eta, bestetik, hezitzaile eta Pausokako lan-

gileendako gunek egin dituzte, zuzendariaren gelatxoak, sukaldia, aldagelak, eta horrelakoak.

DENAK GUSTURAGO

Pausokako eraikin berrian umeak eta hezitzaileak askoz ere gusturako dabilta. Pausokako arduradunen esanetan, Pausoka zaharra ezagutu zuten umeak oraingo lekuan askoz lasaiago dabilta.

Asteleheneko ezohiko bilkuran bertan behera geratu zen kreditua eskatzeko proposamena

AMAGOIA LASAGABASTER

Astelehenean, urriaren 14an, egindako ezohiko osoko bilkuran Batasunak ez zuen lortu 1.353.792 euroko kreditua eskatzeko beharrezkoa den gehiengo absoluturik. Horren ondorioz,

osoko bilkura hartan bertan behera geratu zen garai bateko kuartel zaharrean kultura ekin-tzetarako egin beharreko eraikinaren proiektua. Batasuneko sei zinegotzien botoak ez ziren nahiko izan arkitektoak dagoeneko idatzita daukan proiektua aurrea

ateratzeko. EAJ-EAko, PPko eta PSOEko zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan.

Kreditu hori, gainera, pabiloi bat erosteko ere erabili behar zuten; hortaz, eta osoko bilkuran erabakitakoari jarraituz, ez dute pabiloiarik erosiko.

Bestalde, ezohiko bilkuran datorren urterako ordenantza fiskalak onartu zituzten. Horienez, arabera, 2003. urtean, orain arte ordaintzen ditugun udal zerga gehientsuenei KPIk abenduan emango duen zenbatekoa gehituko zaie.

LABUR

Gastronomia eta Folklore Eguna izango da domekan

Etzi, domeka, VI. Gastronomía eta Folklore Eguna egingo da herrian. Eguerdirako plazan izango dira Espainiako zenbait tokitatik etorritako taldeak. Taldeek euren herrialdeetako produkturik goxoenak eta ohiturarik politenak erakutsiko dituzte.

Zinpeko epaimahaien zozketan ateratako zerrenda ikusgai

Urriaren 15etik 31ra bitartean ikusgai izango da udal-txean zinpeko epaimahai izateko aukeratuak izan diren herritarren zerrenda. Denera, sei herritar izan dira zozketan aukeratuak. Orain, sei horiek informazio gehiago jasotzeko edo alegazioak egingo aukera izango dute.

Demetrio Iriarteren pieza bat jotzen du Gasteizko Bandak

Hil honetan Gasteizko Udala Banda zenbait kontzertu eskaintzen ari da. Hilario Extremiana zuzendariaren aginduetara bost pieza interpretatu dituzte orain arte egindako emanaldietan. Horieta-ko bat Demetrio Iriarte Aretxabaletako txistulari handiaren UDAko himnoa da.


TABERNA
ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

ANA'S
jantxidenda

Iparagirre 4.
Aretxabaleta

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatutak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurriera eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behe • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Gura baduzu, zuk ere utz dezakezu tabakoa!


AMAGOIA LASAGABASTER

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak beste ahalegin bat egin gura du aretxabaletarrek erretzen uzteko. Eta horretarako, Udaleko langileek dagoeneko probatu duten ikastaro bat antolatu dute, Allen Carr-en *Easyway*, hain zuzen ere. Hortaz, Udaleko langileek esan dezakete *Easyway* erretzen uzteko metodo iraultzailea dela; izan ere, joan den urtean egin zuten ikastaroa zortzi langilek, eta horietatik seik ez dute zigarro bat bera ere erre ordutik hona. Beste biek, berriz, ia urtebete eman dute erre barik. Arrakasta ikusita, Prebentzio Zerbitzuko arduradunak herriko 55 lantokitan eman zuten *Easyway* ikastaroaren berri. Zoritxarrez, horietatik lantoki bakarrak erakutsi zuten ikastaroa egiteko interesa. Hala ere, Aretxabaleta inguruko hainbat lantokik egin dute ikastaroa, hala nola: Ederlanek, JMak eta Fagorko sail batzuek. Orain, aldiz, herritarrek izango dute aukera erretzen uzteko ikastaro iraultzailea egiteko. Allen Carrek azaroaren 8an eta 15ean emango ditu eskolak; sei orduko saioa izango da eta egun bakoitzean 14 laguneko taldeak

izango dira; hortaz, 28 lagunek egin ahal izango dute Prebentzio Zerbitzuak antolatutako ikastaroa. Sei orduko saioak 250 euro balio du, baina kopuru horretatik, 60,10 euro Udalak ordainduko dio interesatuari.

METODOLOGIA BERRIA

Allen Carrek egiten duen ikastaroak zerikusi handia du psikologiarekin. *Easyway* ikastaroan esfortzu positiboan oinarritutako eskolak ematen dituzte. Prebentzio Zerbitzuko arduradun Miriamen iritziz, ikastaro horren arrakastaren oinarria Allen Carrek egiten duen arrazoiaren ondorioz dago: esfortzu positiboaren eraginez, hau da, erretzeak barruko organoak zelan hondatzen dituen edo osasuna zelan galtzen den behin eta berriro errepikatu beharrean, erre barik zein ondo egongo diren esaten die parte hartzaileei. Miriamen iritziz, ikastaro batzuetan minbiziaz jotako kontrastezko erradiografiak ere erakusten dituzte, eta egiaztatuta dago horrelako metodologiekin ez dela ezer lortzen. Allen Carrek, berriz, sei ordu besterik ez zuten behar izan Udaleko zortzi langilek erretzen uzteko.



Allen Carren ikastaroarekin sei orduko saio bakarra beharko duzu tabakoa uzteko.

IRMA ARABAOLAZA/BIDAIARIA

Hegazkin txartel berezi bat aldean duela joan da Irma bidaiaria

AMAGOIA LASAGABASTER

Elkarrizketa hau argitaratu orduko Irma Thailandia aldean izango da. Aretxabaletar honek urriaren 14an hasi zuen 'Around the world' bidaiaria, eta ondorengo zazpi hilabeteotan munduko hainbat bazter bisitatuko ditu.

Zer da 'Around the world' bidaiaria?

Trenez egiten den *interrail* antzeko bidaiaria mota bat da, baina hegazkinez. Lagun batekin noa, eta *Around the world* izeneko hegazkin txartela hartu dugu. Txartel horrek aukera emango digu ondorengo urtebetean munduan zehar eramango gaituzten sei hegaldi hartzeko.

Zein bidaiaria aukeratu duzue?

Gauzak nahiko lotuta ditugu, eta horren arabera hauxe izango da bidaiaria: Thailandia, Australia, Zeelanda Berria, Los Angeles, Kanada, Boston, New York, eta etxera. Leku bakoitzean denbora jakin bat egingo dugu, eta, denera, zazpi hilabetez izango gara bidaiatzen.

Bidaiaria turistikoa izango da?

Bai, hasiera baten, bai. Australian, esate baterako, hiru hilabete egingo ditugu, eta modurik baldin badago, behintzat, lan apur bat egiten ahaleginduko gara, baina australiarrek oso burokrazia zorrotza dute eta, seguruenik, ez digute emango lan-baimenik. Eta gainerako lurraldeetan parajeak bisitatzen ibiliko gara.

Zelan bururatu zitzaizun horrelako bidaiaria bat egitea?

Orain dela bi urte Dublinera joan nintzen, ikastera. Han, leku eta kultura askotariko jendea ezagutu nuen. Orduan konturatu nintzen Euskal Herritik kanpora ere bazegoela zer ikusi eta zer ikasi. Gainera, Dublinen ezagututako jendeak horrelako bidaiaria asko egiten ditu, eta azkenean, ni ere abenturaxo bat egitera animatu ninduten. Hasieran, Australiara bakarrik joateko asmoa genuen, baina *Around the world* txartelaren berri izan genuenean, planak guztiz aldatu genituen. Bada-



AMAGOIA LASAGABASTER

"Badakit bizitzan behin bakarrik egingo dudala horrelako zerbait, eta orain da unea"

"Ahal dudanean e-postaz bidaliko dut nire bidaiaren berri 'ARETXAGAZETA'-ra"

kit bizitzan behin bakarrik egingo dudala horrelako zerbait, eta orain da unea!

Bidaiaria honetan zerk ematen dizu errespetu edo beldur handien?

Thailandiako tarreak. Egingo ditugun geldialdietatik herrialde hori da guretako ezezagunena, ez dakigu zer aurkituko dugun han. Hori izan ezik, gainerako bidaiaria zatia nahiko lotuta daramagu, eta lasai goaz.

Horrelako bidaiaria luze bat egiteko, zer sartzen da mailetan?

Oinarrizko gauzak bakarrik. Garrantzitsuena da agiri, doku-

mentu eta baimen guztiak aldean eramatea. Gainerakoa edonon eros dezakegu.

Emango diguzu zure bidaiaren berri ARETXAGAZETAn?

Bai, horixe da asmoa. Hamabostean behin edo ahal dudanean, behintzat, posta elektronikoz bidaliko dut nire bidaiaren berri ARETXAGAZETARA.

Gabonak ere kanpoan emango dituzu; gogorra izango da?

Baietz uste dut; orain arte beti izan naiz etxean egun horietan, baina bueno, etxekoek ondo ulertu dute nire erabakia eta abentura honetan euren laguntza daukat.

IBARRA
estankoa

PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

KIROL ETXEA

Kirol etxeko zergak igo egingo dituzte datorren urtean

Datorren urtean, 65 urtetik gorakoek norbanako edo familiako abonua egin beharko dute


AMAGIOIA LASAGABASTER

Datorren urtetik aurrera kirol etxeko zergek hainbat aldaketa izango dituzte. Halaxe onartu zuten joan den astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran. Eta aldaketarik nabarmenena, hain zuzen, 65 urtetik gorakoendako abonua berria izango da.

Urtero moduan, aurten ere udal zergek gora egin dute, eta horien artean, baita kirol etxeko zerbitzuen zergek ere. Horren arabera, 2003. urtean, abonua, kirol etxerako sarrerak eta ikastaroak garestiagoak izango dira.

HIRU ABONU MOTA

Datorren urtean hiru abonua mota bakarrik egingo dira: familiakoa, norbanakoa eta murriztua. Horren ondorioz, 65 urtetik gorakoak 2003. urtean erretiratuen abonua berezi barik geldituko dira, eta gainerakoek bezala, norbanako edo familiako bonua atera beharko dute. Erretiratuek aurten 42,95 euro ordaindu dute, eta aldaketa horrekin datorren urtean 102,90 euro ordaindu beharko



Aerobikeko eskolek 50 zentimoko igoera izango dute datorren urtean.

ARTXIBOA

dute abonua lortzeko. Kasu horretan igoera %106koa izango da.

Gainerako abonua eta zerbitzuek ez dute aldaketa handirik izango. Gehienek urtero izaten duten igoera antzekoa izango dute datorren urtean ere.

DEBAGOIENKO KIROL TXARTELA

Datorren urtean, kirol etxeko erabiltzaileek Debagoieneko Kirol Txartela eskuratu ahal izango dute. Familiakoak 143 euro balioko du, norbanakoak, 102,65 euro, eta murriztuak, 71,50 euro.

FUTBOLA

Preferenteak ligako lehenengo garaipena lortu zuen Oiartzunen aurkako partiduan

Azkenean ere, preferente mailako UDA taldeko mutilek irabazi dute liga honetako lehenengo partidua. Joseba González aretxabaletarrak sartutako gol bakarra nahiko izan zen Oiartzungo taldea mendean hartzeko. Dena dela, UDAn asko sufritu zuen partiduan, eta galtzeko zorian ere izan zen. Etzi, domeka, Zestoan jokatuko du preferente mailako UDA taldeak.

PILOTA

Jokatu dituzte kirol etxeko Eskuz Binakako Pilota Txapelketako lehenengo partiduak

Joan den asteburuan, bost bikotek jokatu zituzten eskuz binakako partiduak: lehenengoan, Unanue eta Carrillok osatutako bikoteak 22-14 irabazi zuten Isasti anaiei; bigarrenen, Erañak eta Garziaetxabek 22-18 irabazi zuten Sarasua anaiei; hirugarren partiduan, berriro ere Eraña eta Garziatxabe aritu ziren. Edozelan ere, partidua galdu egin zuten, 10-22, Isturitzen eta Irasuegiren aurka.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

UDA- Arrasate
ohorezko ligan.
Domekan. 16:30. Ibarra.
UDA- Legazpi
Bigarren mailako erregionala.
Zapatuan. 17:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.(2)-Tolosa (2)
Gazteak.
Egubakoitzean.
Oskarbi.(2)-Aretxab.(2)
Nagusiak.
Zapatuan. Elgetan

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Oiartzun 0
Preferentea.
Burumendi 1 UDA 3
Gazteen Euskal Liga.
UDA/Almen 3 Urki 1
Bigarren mailako erregionala.
Eibartarrak 3 UDA/Almen 1
Bigarren mailako gazteak.
Ondarroa 3 UDA/Almen 0
Lehenengo mailako kadeteak.
Eibartarrak 1 UDA (b) 4
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Uriarte/Hoyon 22
Altzatarra 8
Kadeteak.
Altube/Kortabarria 10
Añorga 22
Gazteak.
Alzola/Lasagabaster 10
Añorga 22
Seniorrak.
Errasti anaiek 13
Eibarbar 22
Nagusiak.

Gemes

edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18

Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza • Depilazioa: argizari beroa eta hotza • Dekolorazioa • Behin betirako makilajea bekain eta ezpainetan
Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak... • Azalaren garbiketa osoa: adinaren eta zimuren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
Ordezko azazkalak, natural-naturalak manikura eta aplikazioa • Pedikura • Dieta personalizatuak • Betileen tindaketa • Solarium zerbitzua ere badaukagu

MUNDUTARRAK ARETXABALETAN

GURUZNE ANTZIA

BRASILGO TAUBATÉ HIRIAN BIZI DA

“Brasilerako proposamena egin zigutenean, lorik ere ez nuen egiten”

AINZANE GARDOKI

Guruzne, zortzi urteko alabarekin eta mutil-lagunarekin batera, maiatzean joan zen Brasilgo Sao Paulo estatuko Taubaté hirira. Lan kontuek eraman zituzten hara. Badaukate asmoa Aretxabaletara itzultzeko, baina datozen lau urteotan Brasilen biziko dira.

Guruznek, erabaki hartzeko orduan, ardura nagusi bat zuen: zelan moldatuko ote zen alaba Brasilen?: “Hona etortzeko proposamena jaso genuenean, lorik ere ez nuen egiten. Beldur nintzen. Baina orain oso pozik gaude, Anek ez duelako inolako arazorik eduki. Pozik joaten da eskolara, eta lagunak egin ditu berehala. Guri ere gauza berbera gertatu zaigu. Hemen jendea oso irekia da, horrek atentzio handia eman digu; badirudi betidanik bizi izan garela hemen”, esan digu Guruznek.

Brasilen dagoenetik Guruznek ez du lanik egiten etxetik kanpo, baina, edozelan ere, ez da geldirik egoten: “Portugesa eta alemana ikasten ari naiz. Umea eskolara eraman eta gero, eskolak hartzen ditut; gero, bazkaria prestatzen dut, elkarrekin bazkal-


tzen dugulako hirurok. Arratsaldeetan igerilekura joaten naiz edo egin ditudan lagunekin kafetxoa hartzen dut. Pintura ikastaroa egiten ere hasi naiz”, azaldu digu Guruznek.

“Izugarri handia da Brasil, denetarik dago. Rio de Janeiro zoragarria da”

Ezin esan daiteke Guruzne gaizki bizi denik Brasilen, pentsatuko du batek baino gehiagok. Turismo apur bat egiteko aukera ere izan dute Brasilen: “Izugarri handia da Brasil. Rio de Janeiro, adibidez, zoragarria da. Kostaldeko beste herri batzuk ere bisitatu ditugu. Campos de Jordao ere joaten gara; Tirol ematen du inguru hark guztiak. Sao Paulo, berriz, ez da batere atsegina. Dena dela, denetarik aurki daiteke hemen, Brasilen”, dio Guruznek. Baina Aretxabaletako lagunekin eta familiar-tekoekin afaltzera joateko gogoia ere askotan izaten ei du.



HURRETIK



Robustiano Rodríguez

Corazón de Encina elkartekue

Oin dala 32 urte etorri zan Robustiano Extremaduratik Aretxabaletara. Azkar ohitu zan gure herriko bizimodure. Dana dala, Extremadurako ohiturek ez ditte berehalakuen ahaztu gure.

Nungue zara?

Extremadurako Jerez de los Caballeros herrixen jaixotakue naz.

Eta noix etorri zitzen hona?

1970. urtien. Aitta ordurako Aretxabaletan ebillen lanien.

Corazón de Encina extremadurako elkartekue be bazara; noixtik?

Oin dala zortzi urte Mondraguen taldie sortu zanetik hona parte hartu izen dot Córason de Encinako elkartien.

Zergaittik ez da egin holako talderik Aretxabaletan?

Oso gutxi garelako. Aretxabaletako bazkide bi bakarrik gauz elkartien.

Oingo domekan egingo dan Gastronomía eta Folklore Egunien parte hartuko dozu?

Bai. Batetik, Zaria Mendi Taldeko kide moduen Martin Garairi lagunketan ibiltten naz, eta, bestetik, Extremadurako taldiakin beste ekitaldi batzuk egitten dittut.

Eta domekan ze egongo da jateko eta ikusteko?

Dantzak oso politte izeten die ikusteko. Jateko, barrez, gauza ugari egongo da; erroskillak, pintxo morunuek, urdeiazpikue, eta edateko, ardaue!

Extremadurako ze igerketan dozu faltan gure herrixen ?

Ezer be ez. Neu bi aldetakue naz, euskaldune eta extremadurarra.

Patxaran Lehiaketan parte hartuko dozu?

Bai, aurten lelengo aldiz, gaiñera.

Afiziñorik?

Mendixe, adibidez, asko gustetan jat.

A.L.

NIREBIDAIAHURA / Arantzazu Uribetxebarria

Txina / 2001eko maiatza

Arantzazuk eta senarrak beste 14 bikoterekin batera hartu zuten Madrilen Pekinera joateko abioia. Ez ei dira oso bidaiazaleak, baina Txinara pozik, oso pozik joan ziren; hamabost egun egin zituzten Txinan. Handik, betiko gordeko dituzten oroitzapen asko eta alabatxo bat ere, Laida Mei, ekarri zituzten.


Pekindik Hunan probintziara joan ziren. Han, hotelera heldu bezain laster umea entregatu zieten. 14 neskatila izan zituzten bikotekide guztiek lagun hurrengo 15 egunetan. Umeak ekartzeko beharrezkoak ziren paperak egin bitartean, Hunan eta Pekin bisitatzeko aukera ere izan zuten. Txinako harresia, Lamen eta Zeruko tenpluak, Maoren jaiotetxea eta Tianamen plaza ere bisitatu zituzten. “Txinarako bidai berezia izan zen; ilusioz gainezka, helburu jakin batekin joan ginen, baina aukera aparta ere izan da kultura eta jende berria ezagutzeko. Agian, umearen bila joan ez bagina, inoiz ez genuen horrelako bidai bat egingo”, esan digu Arantzazuk. Hark esan digunez, oso langileak eta borondate onekoak dira txinarrak, baina beldur apur batekin ere joan ziren: “Izan ere, Txinako umeen bila gindoa zen; hango herritarrek hori zelan hartuko zuten beldur ginen, baina erreakzioa guztiz kontrakoa izan zen. Kanean umeengana etortzen ziren bedeinkazioa izango balira bezala; zortea ematen duten umeak zirela esaten ziguten”, azaldu digu Arantzazuk. Gustura ibili ziren 15 egunetan Txinan, baina Arantzazuk hango jakiak ez zituen lagun izan: “Ez nuen ezer jaten, jaten ari nintzen itxurak egiten nituen. Ezinezkoa”. Argi daukate berriro itzuliko direla Txinara: “Hurrengoan semearekin, Xabierrekin, eta Laidarekin joango gara. Hasita gaude planak egiten”.



“Ilusioz gainezka, helburu jakin batekin joan ginen”

“Ez nuen ezer jaten, jaten ari nintzen itxura egiten nuen”

AINZANE GARDOKI



Laidarekin batera hainbat leku bisitatu zituzten Txinan.

JOSU HARATEGIA
Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak
Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

IRIARTE
Umeen denda eta lentzeria

Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

BASABE
jatetxea
Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

IZOTZ Taberna
Mitarte, 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 18 / 97. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

IRUNE IBARRA / GRAFOLOGOA

“Idazkeraren ezaugarriak ikasteko jakin-min handiarekin hasi dira eskoriatzarrak ikastaroan”

AINTZANE GARDOKI

Irune Ibarra han eta hemen askotan entzuten den izena da. Euskal Herrian grafologia gero eta ezagunagoa da, baina oraindik ez dira asko grafologia eta euskara uztartzen dituztenak. Irune geurean da, grafologiari buruzko ikastaroa ematen.

Zer da grafologia?


Berba gutxitan esanda, idazkeraren ezaugarrietatik pertsona bakoitzaren nortasuna edo izaera zehazteko jakintza da.

Eta zein da grafologiaren garrantzia?

Huarte de San Juan mediku euskalduna izan zen XVI. mendean idazkera eta nortasuna lotu zituen lehenetariko zientzilaria. Psikologia indartuz joan den neurrian, grafologia ere indartuz joan da. Gaur egun, Alemanian eta Argentinan, adibidez, grafologia unibertsitateetan ikasten den zientzia da.

Zer erakusten du idazteko erak?

Grafologok hizkien arteko tartearak, hizkien norabideak, inklinazioak, idazkeraren orde-



“Grafologiaren gaineko zientzia lehenengo izkribua bezain zaharra ei da”

“Idazkera, lengoiaia izateaz gain, norberaren keinuen erregistro grafikoa ere bada”

nak, marjinak, eta beste aztertzen ditugu. Idazteko forman eta moduan norberaren gaitasun intelektuala, jokaera moduak, komunikatzeko erak... Azken baten, norberaren nortasunaren eta izaeraren gaineko ondorioak ateratzen ditugu. Idazkera, lengoiaia izateaz gain, norberaren keinuen erregistroa ere bada.

Zu zeu zelan hasi zinen grafologian?

Psikologia ikasten ari nintzela, Bilboko bulego batean ibili nintzen. Orduan izan nuen grafologiarekin lehenengo harremana. Gero, Kalifornian ere egon nintzen, eta han gehiago sakontzeko aukera izan nuen. Geroztik, han eta hemen ikasten eta irakasten ere ibiltzen naiz.

Jende askok hartzen du parte grafologia ikastaroetan?

Askok, bai, baina emakumezkoak animatzen dira gizonetzkoak baino gehiago. Eskoriatzan zazpi lagun hasi dira grafologia ikastaroa egiten, eta hemen ere, emakumezkoak nagusi. Taldetxo horrek idazkeraren sekretuetan murgiltzeko daukan jakin-min izugarriak atentzioa eman dit.

LABUR

Hiru eskoriatzarri egokitu zaie zinpekogai izatea

Hiru eskoriatzarri egokitu zitzairen irailaren 26an Donostiako Auzitegi Probintzialean egin zen jendaurreko zozketan epaimahairako zinpekogai izatea. Urriko azkeneko 15 egunetan udaletxean ikusgai egongo da zerrenda. Zinpekogaiak ezgaitasun edo bateraezintasunen bat baldin badute, tarte horretan adierazi beharko dute. Gero, Udalak bere partidu judizialeko epaile Dekanoari igorriko dio zerrenda. Datoren bi urteetan izango dira zinpekogai.


Euskal Jolasen ikastaroa abian jarri du Udalak

Guraso, irakasle eta begiraleendako Euskarazko Jolas ikastaroa egiteko aukera eskaini du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Euskaraz dakitenei eta euskaraz ez jakin arren seme-alabekin euskaraz jolastu nahi direnei zuzendutako ikastaro bi ziren egitekoak. Bihar hasitekoa zen euskaraz ez dakiten gurasoen ikastaroa, baina pertsona bakar batek eman duenez izena, ez dute ikastarorik egingo. Euskarazko taldeek azaroaren 9an, 16an eta 23an egingo dute ikastaroa.

Gaztekantoin parte hartzeko aukera herriko gaztetxoek

Bihar, zapatua, atea irekiko ditu Gaztekantoin, herriko 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako zuzendutako programak.

Nerea Abad izango da herriko gazteen begiralea aurrerantzean. Bihar hasi eta abenduaren 29ra arte, zapatuetan, 17:00etatik 21:00etara, eta domeketan, 17:00etatik 20:00etara, aisialdiaz elkarrekin disfrutatzeko aukera izango dute gaztetxoek. Jokoak, filmak, irakurgaiak, irteerak... aukeran izango dituzte.



Hispanitatearen Egunak utzitakoak

Joan den zapatuan, Gazte Asanbladak antolatutako Hispanitate Eguneko festan jai giroa izan zen nagusi. Egunez jende askorik ibili ez bazen ere, herriko 25 gazte elkarrekin bazkaldu zuten. “Oso giro ona egon zen”, adierazi digu Gazte Asanbladako kide batek. Eta gaineratu digu iluntzean ez zutela egin herri bilkurarik: “Jendea hurreratu zen, baina Ertzaintzaren furgoneta bi agertu ziren, eta ez genuen pankartarik zabaldu”. Arrakasta handien kontzertuak izan zuen; jende asko batu zen gaztetxean. /A.G.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

'PALABRISMOS' ANTZEZLANA

Gaur, egubakoitza, Ramón Bareak zuzendutako *Palabrismos* antzezlana ikusi ahal izango da HUHEZIKO areto nagusian.

XIII. BIZIKLETA MARTXA

Domekan, XIII. Bizikleta Martxa izango da. Gorosarri plazan hasiko da, 09:30ean. Parte hartu gura duenak ordu erdi lehenago plazan bertan eman beharko du izena.

EZKURTZO, GELLAON

Urriaren 26an, 16:00etan, ipuina, ibilaldia, diaporama, txokolate-jana, eta beste izango da Gellaon.

AKTROKIRENAGENDA

'BITARTEAN HELDU ESKUTIK'

Kirmen Uribek *Bitartean heldu eskutik* poesia erreztaldia egingo du datorren barikuan, hilaren 25ean, kultura etxean. Txomin Uribe eta Josu Aranbarri izango ditu lagun.

EHIZA GARAIA HASI DA

Berrehun ehiztarik baino gehiagok hartzen dute parte egunero zozketan


AINTZANE GARDOKI

Ehiza txikiko denboraldia urriaren 12an hasi zen, eta urtarrilaren 31ra arte iraungo du. Herriko Aldaie elkarteko 320 bazkideek dagoeneko ondo aprobetxatu dute astea: "Indartsu ekin diogu denboraldiari. Elkartean irail erdi ingururako urduritasuna nabaritzen hasten da. Ehiztariok emozio handiarekin bizi dugu garai hau", esan digu Aldaie elkarteko presidente Joxe Mari Ganboak. "Ehiztari askok, nahiz eta emazteak haserretu, hilabete honetan hartzen ditugu oporrak", gaineratu digu.

Eskoriatzan ehizan egiteko 122 postu daude; gehienak Marinena, Leten eta Apotzagan kokatuta daude. Joan den urriaren 10az geroztik, egunero egiten dute zozketa, frontoiko tabernan, norberari zein postu dagokion jakiteko. "Zozketa egunero egingo dugu azaroaren 11ra arte. Denboraldiak gero ere zabalik jarraitu arren, denboraldiko unerik gorenena ordura arte-

"Elkartean irail erdi inguruan urduritasuna nabaritzen hasten da"

koa da. Berrehun ehiztari elkartzen gara egunero zozketan, hurrengo egunean zein postu egokitu zaigun jakiteko". Hegazti migratzaileak harrapatzen dituzte, gehienbat: usoak, ahateak, birigarroak... "Elkarteko bazkide gehienok harrapatzen ditugunak etxerako izaten dira, ez dira saltzeko izaten", dio Ganboak. Denboraldia hasi aurretik gaizkiulertu batzuk izan ei dira ehiztari eta postuak kokatuta dauden zelaien jabeen artean, baina alde biek jarrera ona azaldu dutela eta arazoa konpondu dutela esan digu Ganboak.



Datozen asteotan tiro hotsak entzungo ditugu han eta hemen.



Neskek ondo ekin diote denboraldiari

Joan den asteburuan ekin zioten kadete eta gazte mailako taldeko neskek saskibaloiko denboraldiari. Ondo ekin zioten, gainera; izan ere, kadeteek Oñatin jokatu zuten, Aloña Mendiren kontra, eta 10-31 irabazi zuten. Gazteak, berriz, Loiolaren aurka jokatu zuten, Donostian, eta 41-44 irabazi zuten. Asteburuan senior mailako taldeak hasiko du denboraldia. Kirol Elkarteko presidente Manolo Muñozek esan digu herrian saskibaloia indartzea eta finkatzea dutela helburu. Futbol aretoko mutilak ere gogor hasi dira, emaitza onak lortu dituzte orain arte. /A.G.

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

Balkoirik politenak eta originalenak saria jaso dute

AINTZANE GARDOKI

Etxea eta inguruak loreekin eta landareekin apainduta izatea gustuko izaten dute askok. Beste batzuek, agian, ez diote horri garrantzi handirik emango, baina aurten, Leintz Gatzagako Udalak, herria apaindu guran, balkoirik ederrena saritu zuen jaietan.

Ekimena bultzatu guran, Udalak lau lorontzi banatu zituen etxe bakoitzean. Dagoeneko loreendako eta landareendako sasoirik onena joan bada ere, balkoirik ederrena eta originalena izan dituztenei aipamena egin gura izan diegu. Anparo Aldabek, herriko balkoirik politena izan duela-eta, 90 euroko sari-ordaina jaso zuen Andramaixetan; hortaz, Anparok irabazi zuen Udalak antolatutako Balkoirik Ederrenaren saria. Geranioak eta surfiniak izan ditu, gehienbat, Anparok. Balkoirik Originalaren saria, berriz, Eguzkiñe Alberdirenako izan zen. Artaburu bi, margaritak eta geranioak ditu, besteak beste, Eguzkiñek balkoian: "Alabari artaburu zelaz hazten den erakutsi guran, hazia erein genuen. Prozesu oso atentzio handiarekin zaindu dugu. Baina meritua aitarena da, hark zaintzen ditu-eta landareak", esan digu Alberdik.



Zuri-beltzean ez da ondo bereitzen, baina Anparoren eta Eguzkiñeren balkoiek kolorea eman diote herriari.

Kolore askotako geranioak eta surfiniak izan ditu, besteak beste, Anparok

"Baina meritua aitarena da, hark zaintzen ditu eta lore eta landareak"

LABUR

Udal Artxiboa antolatzeko lanetan hasi da Udala

Uztailean hasi zen Mari Jose Urteaga, artxibo lanetan aditua, udaletxeko artxiboa antolatzen: "Dokumentazio asko sortzen da udaletan, eta, badaezpada, askotan dokumentu berbera hiru edo lau lekutan gordetzen dugu", esan digu alkateak. Dokumentazioa sistematizatzea du helburu Mari Jose Urteaga egiten ari den lanak. Lana amaitu eta gero, artxibo historikoa ere antolatu nahi du Udalak.

Lau lagun aurkeztu dira ludotekako begirale izateko lanpostura

GUREL elkarteak, ludotekarako begiralea behar zuela-eta, deialdi publikoa egin zuen joan den astean. Begirale lanposturako lau lagun aurkeztu dira; denak Debagoienekoak dira; eta horietako bat gatzagarra da. Hautagaiek urtean barrena umeekin landuko dituzten ekintzekin osatutako txosten-txo bana aurkeztu dute. Guraso Elkarteak txostenari erreparatuta aukeratuko du begiralea. Datorren astean zabalduko dute ludoteka.


Gatzagako alkatea izango da Herrilan saioko lehenengo gonbidatua

Goiena telebistak 'Herrilan' saioa estreinatuko du datorren eguaztenean, 20:30ean. Alberto Gorritiberea kazetariak zuzenduko duen saioak bi zati izango ditu: erreportajeak eta elkarrizketa izango dira hizpide hasieran, eta bigarren kazetari bat eta udaletxeko zinegotzi bat ere izango dira platoan programaren bigarren zatian. Gatzagako alkatea izango da alkate guztien artean lehenengo gonbidatua.

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



**MONDRAGON
AUTOMOCION**


AUTOENDAKO OSAGIAK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORIATZA • Tel.: 943 71 90 00



Aranburuzabala, 22 behe
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista

Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa

Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia

Basabe industrialdea, Pab D z/g

Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista

Osteopatia kraneala: estrukturala eta

funtzionala, lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa,

akupuntura, osteopatia.

Belorrieta,6-7. Tel: 943 79 95 64

PSIKOPEDAGOGOAK:

■LEBER KABINETE

PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa

eta tratamendua

Basabe industrialdea, C3-3.

Tel: 943 79 56 98

PARAFARMAZIAK:

■FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria

Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

YOGA:

■SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia

Lezama komertzial zentrua

eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

ESKORIATZA

FARMAZIA:

■BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE

PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia,

formula magistralak

Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

DENTISTAK:

■ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika

Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.

Tel: 943 71 47 36

ORTODONTZIAK:

■AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia

Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

GOITBren ordua!

Orain, ordutegi zabalagoa.

13:30etik 16:30era

Albistegiak, sukaldaritza...

19:30etik 23:30era


Albistegiak, kirola, musika, bidaiak...

Asteburuetan 13:30etik 17:30era

Saio onenak berriz ikusteko aukera

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88

Dintura eta dekorazioa

 **Gimbert**

San Migel 13, behea C
ARETXABAleta
603 143 119

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABAleta

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
"R.E.L.E."



Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABAleta

Hnos. SAJERAS, C.B. 

**Margogintza
DekoratiBo eta
Industriala**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

 **OYANGUREN**
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limitazioak

L. GONZALEZ
PINTURAK
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABAleta
686 113 581 / 943 79 65 46

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05


**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

 **URKO**
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenimendu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

 **Aluminios
KURTZEBARRI**
Aluminioak

Araba Ibilbidea, 25
•Tel.: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
•E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net

 **GORBEA S.L.** 



Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABAleta
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

ARETXABAleta
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABAleta

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABAleta  943 793 187